



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Arte Eszenikoak II

USE 2024

www.ehu.eus



ARTE ESZENIKOAK

ARTES ESCÉNICAS

AZTERKETARAKO ARGIBIDEAK

Azterketa honek HIRU atal ditu. Atal bakoitzeko bi galderetako bati erantzun behar diozu.

Jarraibideetan adierazitakoei baino galdera gehiagori erantzunez gero, erantzunak ordenari jarraituta zuzenduko dira, harik eta beharrezko kopurura iritsi arte.

Azterketa egiteko, 90 minutu dituzu. Azterketako bi aukerek atal berberak dituzte (hiruna atal).

1. atala. Antzerki-obraren iruzkina eta analisisia (4 puntu).

Alderdi hauen arabera egin behar dira iruzkina eta analisisia:

a) Obraren estilo- eta argumentu-ezaugarrien azterketa.

- Antzerki-generoa (puntuak: 0,5).
- Argumentua eta obran ageri den gatazka nagusia (puntuak: 0,5).
- Iritzi pertsonala, aztertutako obrari buruzko argudio teknikoetan oinarritua (puntuak: 0,5).
- Argumentu horrek gaurkotasuna duen ala ez (puntuak: 0,5).

b) Egoera eta testuinguruaren karakterizazioa.

- Obraren fitxa: egilea, garaia, kokapen geografikoa, egilearen ideia artistikoak (puntuak: 1).
- Aztertutako obra zer alderdi soziokultural eta estetikotan kokatzen den eta garai horretako antzerki- eta arte-korronteak (puntuak: 1).

Antzerki-obraren iruzkinean eta analisisian, hauek balioetsiko dira: koherentzia eta kohesioa, aberastasun lexikoa, hizkuntza-adierazpen egokia, zuzentasun ortografikoa eta gaiaren oinarri buruzko ezagutzak.

2. atala. Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu labur bati buruzko iruzkina (3 puntu).

Testu-iruzkina orri betekoa izango da gehienez, eta alderdi hauek aztertu behar ditu:

- Testuko ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak identifikatzea (puntuak: 1).
- Testuan agertzen diren zenbait hitz edo termino tekniko estetiko edo interesgarri adieraztea eta azaltzea (puntuak: 1).
- Ikasturtean izan dituzun esperientziak (eta ikusitako lan eszenikoak) oinarri hartuta, deskribatu nola konpondu zenuten edo nola konponduko zenituzkeen eszenaratzean inplikaturako alderdiak (adibidez, kritikariak edo teorialariak aipaturakoak) (puntuak: 1).

3. atala. Termino teknikoei buruzko galderak (3 puntu)

Erantzunek argiak eta laburrak izan behar dute. Bost lerro nahikoak dira bakoitzeko. Zuzentasun terminologikoa eta sintaktikoa balioetsiko da, eta 0,5 puntu emango zaskio bakoitzari.

Ez ahaztu azterketa-orrialde guztietan kodea jartzea



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2024ko EZOHIOA

ARTE ESZENIKOAK

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A
LA UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2024

ARTES ESCÉNICAS

1. ATALA. Iruzkina eta analisisia. Bietako bat aukeratu. (4 puntu)

- a) Sofokles. *Antigona*.
- b) Patxo Telleria. *Pankreas*.

2. ATALA. Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu bati buruzko iruzkina. Bietako bat aukeratu. (3 puntu)

- a) Federico García Lorca. *Bernarda Albaren etxea*.
- b) Ander Lipus. *Organikoa - Aurreratzea/Antizipazioa*.

3. ATALA. Hamabi termino tekniko hauetatik SEIren definizioa eman. (3 puntu)

- 1. Sinbolismoa.
- 2. Antzerki politikoa.
- 3. Katarsia.
- 4. Korifeoa.
- 5. Inprobisazioa.
- 6. Sorkuntza kolektiboa.
- 7. Pastoral.
- 8. Dantza garaikidea.
- 9. Friso edo banbalina.
- 10. Ekoizlea.
- 11. Oroitarazlea.
- 12. Kapitaina.



ARTE ESZENIKOAK

ARTES ESCÉNICAS

1. ATALA. Iruzkina eta analisisia.

a) Sofokles. *Antigona*.

KREON (*Antigonari*): Eta zuk, aurpegia lurrera okertzen duzun horrek, hori egin izana berretsi ala gezurtatu egiten duzu?

ANTIGONA: Berresten dut, bai; nik egin nuen, eta ez dut ukatzen.

KREON. (*Zaindariari*): Nahi duzun tokira joan zaitezke, jada ez duzu nik egotzitako erruaren pisua.

(*Zaindaria irteten da*).

Baina zuk (*Antigonari*) esadazu labur-labur, luzatu gabe; ba al zenekien hori ez egiteko agindua zegoela?

ANTIGONA: Bai, banekien: nola ez nuen jakingo? Denek dakite hori.

KREON: Eta, hala ere, ausartu al zinen legearen gainetik pasatzen?

ANTIGONA: Ez zidan Zeusek eman agindu hori, eta Ditek ere, lurpeko jainkoen lagunak, ez zuen inoiz horrelako legerik zehaztu gizakien artean. Eta ez nuen uste zure dekretuek indarra izango zutenik baimentzeko gizon batek jainkoen lege idatzi eta aldaezinen gainetik jauzi egitea: lege horien indarraldia ez da ez gaurkoa, ez atzokoa, betikoa baizik, eta inork ez daki noiz agertu ziren. Ez nuen, bada, jainko-jainkosen zigorra erakarriko norbaitek pentsa zezakeenaren beldurrez: jada ikusten nuen, bai, nire heriotza —eta nola ez?—, nahiz eta zuk ezer ez agindu; eta, behar baino lehen hiltzen banaiz, nik esaten dut onuragarria dela: ni bezala hainbeste gaitzen artean bizi denari ez al zaio, bada, mesedegarri heriotza? Eta hala, ez da zoritxarra, niretzat, helmuga hori izatea; eta, aldiz, nire amaren seme baten gorpua hilobiratu gabe balego eta nik jasango banu, hori bai mingarria litzaidake; bestea, ordea, ez zait mingarri gertatzen: baliteke zuri iruditzea nik ero moduan jokatu nuela, baina, gutxi gorabehera, ero bati ematen diot nire erotasunaren berri.

KORUA: Ausardia suharra erakutsi du gazteak, aita suhar baten alaba izaki: ez daki zer den zorigaitzari amore ematea.

KREON (*Koruari*): Bai, baina jakizu pentsamendu zorrotzenak direla erortzen lehenak: izan ere, sutan galdatuta ezin sendoago eta hain gogor bihurtzen den burdina sarritan ikusiko duzu nola pitzatzen den, zartaduraz beteta; ezagutzen dituk ahoko txiki batek menderatu dituen zaldi suharrak; ez dagokio harrokeria bizilagunaren esklabo denari; eta bera primeran ohartzen zen bere harrokeriaz, ezarritako legeak hautsi zituenean; eta, hori egin ondoren, beste harrokeria bat: harropuztea eta poza erakustea hori egiteagatik. Gizona ez naiz ni, benetan, bera da gizona baldin eta, hori eginda, agintearen pisua sentitzen ez badu; baina, nahiz eta nire ahizparen odola izan, nahiz eta nire etxeko buru den Zeus guztia baino are nire odolekoagoa izan, ez berak ez beraren ahizpak ezingo dute ihes egin heriotza lotsagarritik, beraren ahizpari ere leporatzen baitiot ehorzteko erabakian parte hartu izana.

(...)

ANTIGONA: Banaukazu: nire heriotzaz besterik behar al duzu?

KREON: Nire aldetik, besterik ez; hori edukita, dena daukat.

ANTIGONA: Zeren zain zaude, bada? Niri, zure hitzek ez didate atseginik ematen, eta ez lirateke inoiz iritsiko niri atsegin ematera; eta nireak ere



ARTE ESZENIKOAK

ARTES ESCÉNICAS

desatseginak zaizkizu. Nolanahi ere, nola lor nezake loria loriatsuagorik nire anaia lurperatuta baino? Horiek guztiek esango lizukete nire ekintza gogoko dutela, beldurrak ahoa itxita atxikiko ez balitu; baina tiraniak badu, beste abantaila askoren artean, nahi duena egin eta esan ahal izatea.

1. ATALA. Iruzkina eta analisisia.

b) Patxo Telleria. *Pankreas*.

(...)

PAUL

Erretzen jarraitzen duzu, orduan?

JONAN

Jaun eta jabe naiz neure buruan
ta hilko naiz nik nahi dudan moduan.

Ez baitzara zu bakarria munduan.

Paulek sukaldeko gasa pizten du.

JONAN

Ta hiltzearen gaia aipatu duzunez...

PAUL

Ez dut gaia atera dakidanez.

JONAN

Zerbait esango dut baina nekez...

Ez baizait gertatzen batere errez

PAUL

Egin ezazu ba ahalegina.

JONAN

Hau ez nizuke esango ez bazina adiskide kuttun eta mina.

PAUL

Milesker. Zuri lore berdina.

JONAN

Oraindik mantentzen duzu asmoa
hirurogei urtekin hiltzekoa?

PAUL

Bai horixe. Erabaki irmoa.

Kontu hori ez da txantxetakoa.

JONAN

Denbora arin pasatzen da, ligero,
ta urte eskas bat falta da honezkero.

PAUL

Hirurehun eta lau egun gaur gero.

Kontaketa egiten dut egunero.

JONAN

Aldiz, Jabilo, pankreasik gabe

hiltzen ari zaigu, oharkabe.

PAUL



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2024ko EZOHIOA

ARTE ESZENIKOAK

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A
LA UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2024

ARTES ESCÉNICAS

Neu ere banaiz egiaren jabe,
baina salba liteke, halan da be.

JONAN

Salba liteke, bai, eta agian zure esku dago neurri handian.

PAUL

Hitz egin mesedez modu garbian eta sartu zaitetz behingoz mamian.

JONAN

Hiltzeaz dago Jabilo pobrea. Zergatik ez diozu ematen zurea?

PAUL

Neure zer, barkatu jakingurea?

JONAN

Pankreasa, ostia!

PAUL

Aita gurea! Ez daukazu ba lotsa izpirik!

JONAN

Ez dizut esan pentsatu barik

PAUL

Bai, detailetxo bat salbuetsirik: ni oraindik nagoela bizirik!!

JONAN

Badakit mementuz hala dala, baina konpon daiteke berala.

PAUL

Deabruak anpara nazala! Ez zara adiskide makala.



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2024ko EZOHIOA

ARTE ESZENIKOAK

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A
LA UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2024

ARTES ESCÉNICAS

2. ATALA. Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu bati buruzko iruzkina.

a) Federico García Lorca. *Bernarda Albaren etxea*.

‘Poncia’: *Lolita* –inoiz baino areago Lola Flores gogorarazten duela– grinaz eta indar dramatiko gainezka Lorca-ren pertsonaia mitikoaren larruazalean, Luis Luqueren muntaia eder eta dotore batean. Aldo Ruiz, 2023ko azaroaren 8a.

<https://elteatrero.com/2023/11/08/lolita-critica-poncia-bernarda-alba/>



Argazkiak: Javier Napal

https://www.teatroespanol.es/sites/default/files/media/image/2023/10/poncia_escena_001.jpg

Lorca-ren lan mitikoan Ponciak dituen solasaldietatik abiatuta, testu eder bat idatzi du Luis Luquek, poesiaz betea, Lorca-ren pertsonaia askatu eta, bizileku zuen kartzela horretatik harago, bizia emateko. Dramaturgoaren hitzetan, «Ponciaren esku-hartzeak hartu, eta gogoeta, bakarrizketa, mamuekiko eta itzalekiko elkarrizketa bihurtu ditut». [...] Luquek Bernardaren etxetik atera du, eta itsasora eraman, bere haurtzarora eta nerabegarora. Han, haren ametsak eta irrikak ezagutuko ditugu, eta bere sentsualitatea erakutsiko du. [...]

Lolitaren jardun bikainaz gainera, muntaketaren beste indarguneetako bat Luis Luquek diseinatutako eszenaratze dotore eta ederra da. Eszenaratzeak edertasun handiko eta potentzia estetiko izugarritzko irudiak uzten dizkigu; adibidez, Lolita hondoan oinez agertzen denekoa, Bernardaren garrotea daramala, gortina zuri erdigardenen atzean. Eta haren urrats bakoitzean, argi-foku bat pizten da. Oso baliabide bikaina. Esne-pitxarraren eta edalontzien eszena ere asko gustatzen zaigu, eta, jakina, amaiera indartsu eta askatzailea. [...] Luquek lan bikaina egin du zuzendaritzan, eszenaren eta eszenaren artean



ARTE ESZENIKOAK

ARTES ESCÉNICAS

beltzera eramanez, eta Mónica Boromellok diseinatutako espazio eszeniko bikain (eta efektistan) oinarritua, zeinean agertokia estaltzen duten oihal zuri erdigardenek funtsezko zeregina baitute; haien artean mugituz doa Poncia emankizunak dirauen 70 minutuetan.

EGOKITZAPENA ETA ZUZENDARITZA: Luis Duque. Aktoreak: Lolita Flores. MUSIKA-KONPOSIZIOA: Luis Miguel Cobo. ARGIZTAPENA: Paco Ariza. JANTZIAK: Almudena Rodríguez Huertas.

2. ATALA. Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu bati buruzko iruzkina.

b) Ander Lipus. *Antzerkiaren labirintoan II*.

Organikoa – Aurreratzea/Antizipazioa

Jar ditzagun eszenan lau aktore eta animalia bat; txakur bat, adibidez. Publikoak nori begiratuko dio? Txakurrari. Guztiok egongo gara txakurraren mugimenduari begira. Zergatik? Ez dakigulako zer egingo duen. Txakur hori hemen eta orain dago. Eta horrek ematen dio indar berezia eszenari. Hori da aktore batek lortu behar duena. Hemen eta orain egotea, bizirik egotea, organikoa izatea, animalia bat bezala. [...]

Aurre hartzea edo aurreratzea gertatzen da bi aktoreren arteko akzio-erreakzioa gaizki ematen denean. Hau da, aktore batek ekintza baten erreakzioa aurreratzen duenean. Adibidez, aktore bezala esaten dizute: Zure ama hil egin da. Zure erreakzioa aurreratzen baduzu, sorpresaren faktorea galtzen da, eta, ondorioz, sinesgarritasuna. Erantzuna eman aurretik, lehenengo ikasi behar da jasotzen. Behin informazioa edo ekintza jasotzen duzunean, orduan erreakzionatzen duzu. Eta erreakzio hori dimentsio ezberdinetakoa izan daiteke. Bat-batean erreakziona dezakezu barre-algara bat eginez, edo denbora bat hartu, eman dizuten berria ez duzulako sinesten, adibidez, eta ondoren negarrez hasi. Erreakzio horrek intentzio oso desberdinak izan ditzake, baina inoiz ezin duzuna egin da aurre hartu erreakzioarekin eman dizuten berriari.

LIPUS, Ander (2023). "Antzerkiaren labirintoan II". Susa; 34-35. or

Kalifikazio-irizpideak

Probaren A eta B aukerek atal berak dituzte. Probak antzerki-obra edo -pasarte bat izango du beti, eta, harekin batera, galdera sorta bat, eta ikasleek, modu egokian erantzungo badute, pentsamendu kritikorako eta gogoetarako gaitasuna eta heldutasuna izan behar dute. 90 minutuko iraupena izango du, eta hiru atal izango ditu.

1. atala. Antzerki-obraren iruzkina eta analisisa (4 puntu)

Alderdi hauen arabera egin behar dira iruzkina eta analisisa:

- a) Obraren estilo- eta argumentu-ezaugarrien azterketa.
 - Antzerki-generoa (puntuak: 0,5).
 - Argumentua eta obran ageri den gatazka nagusia (puntuak: 0,5).
 - Iritzi pertsonala, aztertutako obrari buruzko argudio teknikoetan oinarritua (puntuak: 0,5).
 - Argumentu horrek gaurkotasuna duen ala ez (puntuak: 0,5).
- b) Egoera eta testuinguruaren karakterizazioa.
 - Obraren fitxa: egilea, garaia, kokapen geografikoa (puntuak: 0,5).
 - Egilearen ideia artistikoak (puntuak: 0,5).Aztertutako obra zer alderdi soziokultural eta estetikotan kokatzen den (puntuak: 0,5).
Garai horretako antzerki- eta arte-korronteak (0,5 puntu).

Antzerki-obraren iruzkinean eta analisisian, hauek balioetsiko dira: koherentzia eta kohesioa, aberastasun lexikoa, hizkuntza-adierazpen egokia, zuzentasun ortografikoa eta gaiaren oinarriari buruzko ezagutzak.

2. atala. Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu labur bati buruzko iruzkina (3 puntu)

Testu-iruzkina orri betekoa izango da gehienez, eta alderdi hauek aztertu behar ditu:

- Testuko ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak identifikatzea (puntuak: 1).
- Testuan agertzen diren zenbait hitz edo termino tekniko estetiko edo interesgarri adieraztea eta azaltzea (puntuak: 1).
- Testuan ageri diren ideiei buruzko iritzi pertsonala, zure eszenaratze-esperientzietan oinarritua (puntuak: 1).

3. atala. Termino teknikoei buruzko galderak (3 puntu)

Erantzunek argiak eta laburrak izan behar dute. Bost lerro nahikoak dira bakoitzeko. Zuzentasun terminologikoa eta sintaktikoa balioetsiko da, eta 0,5 puntu emango zaizkio bakoitzari.